

HEZHI: MUSIKA BIZI EZAN/K

ARTISTAREN EZAGUTZEKO IKERKETA FASEA

PANTXIXEN
AURKEZPEN
INTERAKTIBOA



KONTZERTU
BATEN AFIXA
edo MUSIKA
KRITIKA



MALETA IBILTARIA



PROUSTEN
GALDEKETA



KONTZERTU BATEN AFIXA / MUSIKA KRITIKA

Maila:

- Lizeoa / Bigarrena
- DBH / Laugarren maila

Gaitasunak:

- [Frantziako Hezkuntza Nazionaleko buletin ofiziala / Bigarreneko atzerritar eta eskualdeko hizkuntzen programa:](#)
- [Écouter, visionner et comprendre](#) :
- Peut comprendre une gamme étendue de matériel enregistré ou radiodiffusé, y compris en langue non standard et identifier des détails fins incluant l’implicite des états d’esprit et des relations entre interlocuteurs.
- [Lire et comprendre](#) : (Abestien, olerkien hitzak)
- Peut comprendre des opinions, émotions et attitudes exprimées de façon implicites et explicites, dans tout type de communication, à condition de pouvoir utiliser des outils de référence.
- Peut lire pour son plaisir de façon très autonome, en adaptant le mode et la rapidité de lecture à différents textes (magazines, romans assez simples, livres d’histoire, biographies, carnets de voyage, guides, passages de chansons, poèmes), en utilisant les références adéquates.
- [Écrire](#) :
- Peut écrire des textes descriptifs et de fiction clairs, détaillés, bien construits dans un style sûr, personnel et naturel approprié au lecteur visé. Peut faire un rapport critique détaillé d’événements culturels (par ex. des pièces de théâtre, des films, des concerts) ou d’oeuvres littéraires.
- [Traiter un texte ou un dossier documentaire:](#)
- Peut exploiter des informations et des arguments venant d’un texte / dossier complexe (en langue X), afin de commenter un sujet (en langue Y), de tirer des conclusions, d’ajouter son opinion, etc. en prenant en compte le style et le registre d’origine.

Euskarriak eta iturriak:

- Pantxixek hautatutako diskoen eta abestien zerrenda garaika sailkatuak
- Pantxixen eraginak kantu edo garai bakoitzarentzat
- Deskarga daitezkeen kantuak edo loturak kantuak entzuteko
- Webgune batzuen helbideak: eke.eus, badok.eus, entzun.eus
- Musika kritika baten egiteko metodoa

Saio kopuruak:

- Ordu bateko bi saio

Oinarrizko jakintzak:

- [Euskal Autonomia Erkidegoko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculuma / Laugarren maila:](#)
- [A - HIZKUNTZAK ETE BEREN HIZTUNAK](#) :
- Barietate dialektalen berezko ezaugarrien (fonikoak, gramatikalak, lexikoak eta semantikoak) eta soziolektoen eta erregistroen arteko aldeak.
- [B - KOMUNIKAZIOA](#) :
- [1. Testua eta testuingurua:](#)
- Euskal musika-ondare tradizionalaren eta garaikidearen erreferentziazko abestiak.
- Testu ikoniko eta hitzezkoen eta multimodalen irudia eta elementu paratestualak aztertzeako jarraibideak.
- [2. Ulermena:](#)
- Ahozko eta irakurriaren ulermenerako estrategiak. Testuaren zentzu orokorra. Ideia nagusiak eta sekundarioak eta zatien arteko erlazioa; garrantzizko informazioaren aukeraketa eta atxikipena. Informazioa berreskuratzea eta ondorioztatzea. Igorlearen asmoa. Testuetako lexikoa.
- [5. Informazio-alfabetatzea:](#)
- Informazioa bilatu eta hautatzeko estrategiak, fidagarritasun, kalitate eta egokitasun-irizpideak erabiliz; informazioaren azterketa, balorazioa, berrantolaketa eta sintesia —norberaren eskemetan— eta informazioa ezagutza bihurtzeko estrategiak; sormenezko komunikazioa eta hedapena, jabetza intelektuala errespetatzen duena.
- [C - LITERATURA-HEZKUNTZA:](#)
- [1. Irakurketa autonomia:](#)
- Euskal literatura, musika eta eszena-ondarearekin lotura emozionalak (sentsazio berrien esperimentazioa), sinbolikoak (pertsonek gisa aberasteko beharra) eta kulturalak ezartzeko estrategiak.
- Nork bere gustuak eta irakurle-nortasunaz jabetzeko eta hitzez adierazteko estrategiak.

Antolaketa eta materiala:

- > Kontzertu baten afixa / Musika kritika:
- Informatika gela edo IDZ
- > Kontzertu baten afixa:
- Inprimagailu bat (irudiak eta testuak inprimatzeko)
 - A3 orriak
 - Aizturak, kola, kalka papera, margoak, kolorezko arkatzak...

MUSIKA KRITIKA

Bukaerako ekoizpena eta urrats ezberdinak:

Ikasleak Pantxixen kontzertu baten afitxa ekoiztuko du ikerketa eta bilketa lan bat egin ondotik.

- 1. saioa:
 - > Ikasleek (bakarka):
 - Garai bati lotutako kantuak entzutea. Artistari eta eraginei buruzko ikerketak egitea: musika zatiak entzutea, bideoak ikustea, artikulua irakurtzea. Ikasleen mailaren arabera, irakasleak webgune zerrenda bat proposa dezake.
 - Notak hartzea - Ez ahantz iturrien izendatzea!
 - > Irakasleak: taldeak osatzea eta garaiak banatzea
 - > Ikasleek (taldean):
 - Ideiak mapa mental edo zirriborro batean antolatzea. Irakasleak lehen ebaluaketa formatibo bat egin dezake.

- 2. saioa:
 - > Musika kritika idaztea irakaslearen oharrak kontuan hartuz.

- 3. topaketa:
 - > Bizpahiru musika kritika irakurtzea Pantxixi.

Irizpide proposamenak:

- Izenburu berezia asmatu diot ene musika kritikari.
- Ene planoa koherentea da.
- Argudioen eta adibideen aniztasuna eta kalitatea zaindu ditut.
- Ulergarritasuna eta testuaren koherentzia zaindu ditut.
- Informazio zuzenak eta baliagarriak eman ditut.
- Hiztegi aberatsa erabili dut eta artoski hautatu dut.
- Testuaren hizkuntza-zuzentasuna zaindu dut eta berrikuspen ortografikoa eta gramatikala egin dut.

Talde lana:

- Binaka edo hirunaka: garai bat taldeka
- Entzumen ariketa eta lehen aztarna idatzia: bakarka - etxean edo gelan
- Lehen ideiak antolatzea, testuaren idaztea: taldean - gelan
- Abestia entzunaraztea eta musika kritika beste ikasgelakoei aurkeztea



KONTZERTU BATEN AFIXA: Pantxixen eraginak eta proiektu ezberdinak

> Rock garaia, ipar EHko taldeak, gaztetxeak, Iparrok

- Mutiko alferra - Taldea: Mister Saguak - Diskoa: Rock eta kitto, 1992, IZ disketxean (EKEren atarian deskargatzeko)

> Eraginak

70eko rock taldeak : Deep Purple, Led Zeppelin - Punk taldeak: Sex Pistols, GBH, OTH eta abar.

KONTZERTU BATEN AFIKA: Pantxiren eraginak eta proiektu ezberdinak

> Elaudiren garaia: 3 disko, 10 urtez, folk eta munduko musikak,

Kantu Txapelketa, Xabier Itzaina

- Ikusten zaitut – Taldea: Elaudi - Diskoa: Denborarena, 2010
- Ni eta nik diodana - Taldea: Elaudi - Diskoa: Denborarena, 2010
- Gauetan - Taldea: Elaudi2 - Diskoa: Gizonak balaki, 2006-7 (EKEren atarian deskargatzeko)

> Eraginak

Lete, Laboa, Peio eta Pantxoa, Mendibil ta Xeberri, eta abar.

KONTZERTU BATEN AFIKA: Pantxixen eraginak eta proiektu ezberdinak

> Pantxix bakarlarì gisa, talde batek lagundurik, kantautore baina kolore elektriko batekin, akordeoiaren eta gitarraren arteko nahasketa

- Paranoia - Artista: Pantxix - Diskoa: eHe, 2021, Belarri
 - > Jon Miranderen olerkiak, Mikel Laboaren eragina, disonantziaren gustua
- Merguez blues - Artista: Pantxix - Diskoa: eHe, 2021, Belarri
 - > Afrikan bluesa, Antton Lukuren antzerkia, Itxaro Borda
- Jarririk – Artista : Pantxix - Azken diskotik : Alanbreen artetik - 2025. Hitzak eta melodia: Pantxix. Moldaketak: Sabine Lécussant.
 - > Oso pertsonala : familiako gertakari latza.

> Eraginak

- Afrikan bluesa: Bubacar Traore, Ali Farka Toure, Rokia Traore

KONTZERTU BATEN AFIXA: Pantxixen eraginak eta proiektu ezberdinak

> **Borroka: bikote indartsua, inprobisaketatik sortu**

kantuak

- Ahakoka - Taldea: Borroka - Diskoa: ez da plazaratua izan, 2010ean grabatua
(EKEren atarian deskargatzeko)

> **Eraginak**

A trio (Mazen Kerbaj eta bere lagunak), Mixel Etxekopar eta François Rossé
(Transhumantzia)

KONTZERTU BATEN AFIXA: Pantxixen eraginak eta proiektu ezberdinak

> Bidart/Thérain: inprobisaketa, Jos Royren testuen itzulpenak

- Heziketaren historia - Hitzak: Pako Aristi - Taldea: Alexis Thérain eta Pantxix Bidart -
Diskoa: Metamorfosia, 2016

> Eraginak

A trio (Mazen Kerbaj eta bere lagunak), Mixel Etxekopar eta François Rossé
(Transhumantzia)

KONTZERTU BATEN AFIXA: Pantxixen eraginak eta proiektu ezberdinak

> Elimberri: bi kantautoreen arteko proiektua, kantautoreen tradizio hutsean, makro gertakarietatik harat, intimitatea eta akustikoa helburu. Gaia, hizkuntzak eta Vasconia

- Zahar ele, Zuhur ele - Taldea: Elimberri: Pantxix Bidart & Primaël Montgaufí
- Sua (live studio)- Taldea: Elimberri: Pantxix Bidart & Primaël Montgaufí

KONTZERTU BATEN AFIXA: Pantxixen eraginak eta proiektu ezberdinak

> Bibi: intimitatea, Oihenart, Einstein on the beach

- Bl-Bl: Pantxix Bidart & Monsieur Gadou - Einstein on the Beach
eszenak sustengatzen duen proiektua.

MUSIKA KRITIKA

Musika aztertzeke tresnak eta ideien adierazteko aholkuak

DEFINIZIOA

Informazio metatzea ezin da izan albumaren, single-aren edo kontzertuaren kritika.

Deiarrak bezala entzuleari gogoia eman behar dio edo alderantziz abisu bat izan daiteke, ez dezan denborarik gal obra horrekin.

Bistan dena, kritika baten gibelean, pertsona baten emozioak, gustuak, bizipenak badira. Haatik, musika kritikak azalpenak eta argudioak erabili behar ditu zilegitasuna emateko adierazten duen iritziari.

HELBURUAK

1. Entzuleari artista baten entzuteko interesa neurtzeko bidea ematea
2. Entzulearen erreferentzia kulturalak eta artistikoak aberastea
3. Norberaren sentrazioak eta hautemateak aztertzea artistaren xedeekin konparatzeko.





METODOA

ENTZUN AITZIN:

Informazioak bildu taldeari edo artistari buruz: Jatorria / Aitzineko albumak / Genero musikala / Diskoaren kontzeptua / Ekoizteko baldintzak, testuingurua...

ENTZUTEAN:

- Adi egon: diskoa bakarrik entzun ezazu eta osoki. Musikan murgildu behar duzu.
- Diskoaren azala edo CDaren liburuxka miatu eta aztertu behar dituzu. Informazio eta irudi anitz aurkituko dituzu euskarri horietan.
- Notak hartu: zure emozioak, hautemateak zuzenean idatz itzazu.

NOTAK HARTZEKO URRATSAK:

KASU: Artistaren hautuak edo xedeak aztertu beharko dituzu: zure konbentzitzea erdietsi duenez adieraz ezazu.

- 1- Soinuaren kalitatea eta moldaketak
- 2- Musikarien eta kantariaren estiloa eta teknika
- 3- Melodien kalitatea, berezitasuna / Erritmo aldaketak / Koplen eta errepiken arteko harremana / Soloak / Pasarte instrumentalak...
- 4- Giro edo erritmo aldaketaz kantu batetik beste batetara ohartu beharko zara. Kantuen edo musika zatien ordena garrantzitsua da ere bai
- 5- Hitzen erran-nahia: hiztegia, metaforak, konparaketak... / Hitzen eta musikaren arteko harremanak / Testuen erran-nahia eta beren lotura melodiekin / Kantuen pertsonaiak, narratzaileak eta autoreak identifikatu eta menturazko loturak aurkitu
- 6- Diskoaren eta CDaren azala eta liburuxka: Grafismoa / Ilustrazioak / Tipografiak / Inpresioa
- 7- Elementu guzi horien bilakaera (lehen diskotik oraingokoa arte)

ENTZUN ONDOTIK:

- Iritzi orokorra idatzi gako hitzak zerrendatuz
- Kalitateak eta akatsak/itzalak identifikatu
- Zure iritzian ñabardurak egin: maitatu, anitz maitatu edo gorrotatu dituzun elementuak

MUSIKA KRITIKA

TRESNAK

MUSIKA GENEROAK: Afrobeata / Ahots-polifonia / Ambient-a / Bertsoa / Black metala / Bluesa / Countrya / Cumbia / Dance-a / Dream-popa / Elektronikoa / Elektro-folka / Elektro-swinga / Esperimentala / Flamenkoa / Folk-popa / Folk-rocka / Folka / Funka / Hardcorea / Herri Kanta / Jazz-rocka / Kantautorea / Metala / Noise-Rocka / Plaza / Pop elektronikoa / Pop-rocka / Popa / Progresiboa / Punck-Rocka / Punka / Rapa / Reaggaea / Rock&Rolla / Rocka / Salsa / Ska / Soula / Stonerra / Triki-popa / Trikitia

> Genero ezberdinak deskubritzeko parada baduzu BADOKen webgunean (albumak beren estiloaren arabera sailkatuak dira). Horrek aztertu behar duzun albumaren sailkatzen laguntzen ahal zaitu.

> Genero baten definizioa bilatuz, ideiak eta hiztegi egokia aurkituko duzu zure kritikaren eraikitzeko.

ADJEKTIBOA: Genero musikaren arabera, adjektiboak baikorrak edo ezkorak izan daitezke (adjektibo batzuk bi zerrendetan aurkitzen ahal dituzu).

BAIKORRAK: hunkigarria, animatua, dinamikoa, testu irrigarria, riff bipila, melodia zoragarria, miresgarria, hunkigarria, teknika harrigarria, pilpiratsua, landua, berritzailea, estetikoa, alaia, liluragarria, lasaia, etorkizun handikoa, zaintsua, kitzikagarria, lasaigarria, alaia, poetikoa, engaiatua, malenkoniatsua, beldurgarria, nostalgikoa...

EZKORRAK: hisgarria, malenkoniatsua, oldarkorra, desatsegina, beldurgarria, irrigarria, beldurgarria, entzungaitza, nahasia, traketsa, nostalgikoa, etsigarria, itsusia, zozoa, interesik gabekoa, aspergarria, luzeegia, urria, motela, gatzila / gatzgabea, ulergaitza, teknikoegia, errepikakorra, gaizki eraikia, amateurismoa, okaztagarria, ohiko gaia, sorpresarik gabekoa, laua...

LOTURAK EGITEKO ITURRIAK:

<https://www.eke.eus/eu/kultura/literatura/literatura-eta-musika>

<https://www.eke.eus/eu/kultura/musika/euskal-rocka>

<https://www.eke.eus/eu/kultura/musika/euskal-musikaren-kronologiak>

<https://www.entzun.eus/kritikak>

<https://entzun.fm/>

<https://www.badok.eus/euskal-musikak/>



MUSIKA KRITIKA



MUSIKA KRITIKA IDATZI

- > “Ni” edo “Gu” saihestu
- > Zure estiloa aurkitu: komikoa, ironikoa, metaforikoa, narratiboa...
- > Orainaldian idatzi
- > Elkarriketak saihestu

1. Sarrera

Obra aurkeztu:

- Albumaren edo kantuaren izenburua
- Artistaren edo taldearen izena
- Data
- Genero musikala (ikus generoen zerrenda)
- Testuingurua (albuma goaitatua zen? Bilakaera bat ote da artistaren ibilbidean? Buzz handia egin du? Eta abar.

2. Obraren deskribapen orokorra

- Albumaren kontzeptua, hautu artistikoak, giroa, gai nagusiak
- Melodiak eta harmoniak : goxoak, bereziak, errepikakorrak... (ikus adjektiboen zerrenda)
- Musika tresnak : Gehien entzuten direnak? Egokiak ote dira? Batzuk soberakinak? Beste batzuk eskas? Musika tresna tradizionalak? Bereziak?
- Ahotsak: Ahots adierazgarria, buru-ahotsa, a capella, bere intonazioa...
- Produkzioa: nahasketaren kalitatea, soinu efektuen hautua



3. Azterketa eta interpretazioa

- Hitzak : hitzen erran-nahia, hitzen poesia, hitzen engaiamendua...
- **Hitzen eta musikaren arteko loturak**
- Emozioak eta giroa
- **Konparaketa beste obra batzuekin egin dezakezu: lotura artistaren generoarekin, bilakaera aitzineko albumekin, lotura beste artista batzuekin**

4. Puntu azkarrak eta itzalak

- Ongi ibiltzen dena: berezitasunak, produkzioa, emozioak, trebezia teknikoa, finezia artistikoa...
- Akatsak, itzalak : luzatzen da, sakontasun eskasa, produkzio ahula, klise sobera, karikaturazkoa, estilo hantua, zentzu gabekoa...

5. Ondorioa

- Iritzi orokorra
- Albumaren edo obraren jomuga: zein izan daiteke bere publikoa?
- Gomendioa: absolutuki entzutekoa, baztertzekoa edo deskubritzekoa, elementu ezberdinak kontutan hartuz...

MUSIKA KRITIKA



AHOLKUAK

ZEPOAK

- Musika kritika ezin da izan deskribapen arrunta.
- Alderantziz, emozioak edo iritzia soilik ez dira onargarriak.
- Azkenik, informazio edo jakitate metaketak saihestekoak dira.

FORMULA MAGIKOA

Kalitatezko musika kritikak elementu zehatzak deskribatu behar ditu, loturak eginez emozioekin edo entzulearen gustuekin eta beharrezko jakitateak pasaraziz!

ULERGARRITASUNA

- Lagunarteko erran-moldeak bazter itzazu.
- Erranaldi luzeegiak saihets itzazu.
- Klipseak edo betiko leloak ahanztu itzazu, zure estiloa aukeratzeko!

